



Declaración institucional	Adierazpen instituzionala
Nº 22346 EK.	ERREGISTRO OROKORRA / REGISTRO GENERAL
<p>En el año en que la Organización de las Naciones Unidas cumple 70 años, organización internacional principal creada para "preservar a las generaciones venideras del flagelo de la guerra", y siendo uno de sus principales objetivos "mantener la paz y la seguridad internacionales".</p>	<p>Nazio Batuen Erakundeak 70 urte betetzen ditu aurten. Bera da "etorkizuneko belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko" sortu den nazioarteko erakunde nagusia, eta "bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzea" du bere helburu nagusien artean.</p>
<p>Transcurridos 40 años desde el abandono por parte de España del Sahara Occidental, convertido desde entonces en un territorio no autónomo pendiente de descolonización, sometido además a una ocupación por parte de Marruecos.</p>	<p>Espainiak duela 40 urte abandonatu zuen Mendebaldeko Sahara, eta, harrezkero, deskolonizatu gabe segitzen duen lurralde ez-autonomo bat da, Marokoren okupaziopean dagoena, gainera.</p>
<p>Correspondiendo a las Naciones Unidas y a sus estados miembros la responsabilidad principal en materia de descolonización, según la Carta Fundacional de las Naciones Unidas, cuyo Consejo de Seguridad tiene la máxima responsabilidad en la búsqueda de una solución justa y definitiva.</p>	<p>Deskolonizazio-kontuetan, Nazio Batuei eta bertako estatu kideei dagokie erantzukizun nagusia, Nazio Batuen Sortze Gutunaren arabera, eta erakunde horretako Segurtasun Kontseiluak du erantzukizun handiena bidezko eta behin betiko konponbide bat bilatzen.</p>
<p>Las parlamentarias y parlamentarios vascos, en sesión plenaria:</p>	<p>Euskal legebiltzarkideok, osoko bilkuran:</p>
<p>1. Instamos al Gobierno español, en su calidad de potencia administradora <i>de iure</i> y miembro del Grupo de Amigos del Secretario General para el Sahara Occidental y además miembro no permanente del Consejo de Seguridad durante el mandato 2015-2016 a:</p>	<p>1. Espainiako Gobernuari eskatzen diogu, <i>de iure</i> potentzia administratzailea den aldetik eta Mendebaldeko Sahararako Idazkari Nagusiaren Lagunen Taldeko kidea denez eta orobat 2015-2016 agintaldian zehar Segurtasun Kontseiluko kide ez-iraunkorra ere:</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Cumplir con su responsabilidad para 	<ul style="list-style-type: none"> • Bete dezala 1975etik bukatu gabe


<p>poner fin al proceso de descolonización del pueblo saharauí, inconcluso desde 1975, mediante la celebración de un referéndum que asegure la expresión libre y auténtica de la voluntad del pueblo saharauí.</p>	<p>dagoen deskolonizazio-prozesuari amaiera emateko duen erantzukizuna, saharar herriaren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferendum bat eginez.</p>
<ul style="list-style-type: none"> Defender la doctrina consolidada de las Naciones Unidas en materia de descolonización y territorios no autónomos para los que rige la Resolución 2625 de la Asamblea General de las Naciones Unidas, que insta "El establecimiento de un Estado soberano e independiente, la libre asociación o integración con un Estado independiente o la adquisición de cualquier otra condición política libremente decidida por un pueblo constituyen las formas del ejercicio del derecho de libre determinación de ese pueblo", siendo ese el contenido de la autodeterminación. 	<ul style="list-style-type: none"> Defenda dezala Nazio Batuek deskolonizazioari eta lurralde ez-autonomoei buruz finkatua duen doktrina. Halako lurraldeei dagokienez, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2625 Ebazpenak adierazten du: "Estatu subirano eta independente bat ezartzea, estatu independente batekin askatasunez elkartzea edo hartan integratzea, edo herri batek libreki erabakita bestelako izaera politiko bat bereganatzea izango dira herri baten determinazio askerako eskubidea gauzatzeko bideak". Hori da, hain zuzen ere, autodeterminazioaren edukia.
<ul style="list-style-type: none"> Velar, en defensa de la paz y los derechos humanos, por la atribución a la Minurso (Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum en el Sáhara Occidental), única presencia de las Naciones Unidas en el territorio, de competencias en la protección y promoción de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales de la población saharauí. 	<ul style="list-style-type: none"> Bakea eta giza eskubideak defendatzeko, arduradadila Minurso Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioari, lurraldean dagoen Nazio Batuen presentzia bakarrari, eskumenak esleitzen diren saharar populazioaren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta sustatzearen arloan.
<p>2. Nos adherimos a la recientemente aprobada Declaración de Pamplona, elaborada en la reciente XIX Conferencia de Intergrupos Parlamentarios Paz y Libertad para el Sahara Occidental, celebrada en el</p>	<p>2. Bat egiten dugu onartu berri den Iruñeko Adierazpenarekin, 2015eko otsailaren 21ean Nafarroako Parlamentuan izan zen Bakea eta Askatasuna Mendebaldeko Saharan Legebiltzar Taldeartekoen XIX.</p>

Parlamento de Navarra el 21 de febrero de 2015.	Biltzarrean egin zenarekin.
3. Acordamos remitir la presente declaración a la Presidencia del Gobierno de España, a la Casa Real, al Ministerio de Asuntos Exteriores y a la Misión Permanente de España ante Naciones Unidas.	3. Erabakitzen dugu adierazpen hau bidaltzea Espainiako Gobernuaren Presidentziari, Errege Etxeari, Kanpo Arazoetako Ministerioari eta Espainiaren Nazio Batuetako Misio Iraunkorrari.
Vitoria-Gasteiz, 12 de marzo de 2015	Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 12an

53 / 5V



 CPV/ETP


 ERASO ABERTZALEAK


 EH BILDU